

Azkenean azkena dator. Azkena eta atzena. Baina etorri ez nator edozein tokitatik, Arabatik nator-eta.

Eskerrik asko zuoi, euskaltzainoi, ohorezko euskaltzain izendatu nauzuelako. Ematen didazuen ohore hau, funtsean, Arabari ematen diozue, Arabak euskararen historian eta bizitzan duen garrantzia ohoratzen dugu gaur zuek eta nik, geuk guztiok.

Euskal Herrian zehar bizi izan naiz nire bizitzan; kanpoan ere bai, noski. Baina bizitzaren zati luzeena eta emankorrena Araban burutu dut. Arabari eta arabarrei ba, eskerrak bihotzez.

Aurtengo azaroan 45 urte beteko dira euskaltzain urgazle izendatu ninduzuenetik, zuetariko bat-edo-bat Euskaltzaindian bertan bazen orduan ere. Urte hauetan guztietan Euskaltzaindian ezagutu ditudan hainbeste euskaltzain eta langile argi eta finek nire adimena eta izana aberastu dizkirate, dizkidazue, oparo.

Euskaltzaindian parte hartzea ohore luze bezain pozgarri izan dut urteren urtez. Aspaldiko ohore bizi hori biribiltzen duzue zuok orain ohorezko izendapen honekin.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

Manuel M. Ruiz Urrestarazu  
Euskaltzaindiko egoitzan, 2014ko uztailaren 18an